

Paulo Agirrebaltzategi

Eusenorreko kidea

Gainetik gainditu

■ Joan den larunbatean Bilboko manifestaldian parte hartzekotan nintzen, guztiz arrazoizkoa eta beharrezkoa iruditzen zitzaidalako. HBren Mahaikoen kartzelaraztearen aurkako protesta egitea eta bat nentorrelako horren leloarekin: *Konponbidea, Demokrazia osoa*.

Baina... adiskide baten etxean nongoen ostegun gau hartan; manifestaldira nola joan eta handik nola itzuli ari ginelarik, horra Jose Luis Casoren aurkako atentatuaren eta heriotzaren berri. Lur jota geratu ginen biok. «Ezinezkoa da: ulertezina da!», izan ziren bion berehalako hitzak. Eta gure kezka: zertan geratuko da Bilboko manifestaldia, hain kontu handiz prestatua eta onarpen hain zabala duena? Bertara joateko zen hainbat jendeak atzera joko ote zuen beldurra.

Eta ulertu ezinik etxeratu nintzen gau hartan, J.L. Caso deitoratuz bidean. Noizpait loak hartu ninduen. Ostirala astindua argitu zen eta astinduz joan zen. ETArek ekintza omen zen. Bilera Gasteizen, Ajuria Eneko Mahaiaik, gaitzespen-hitz gordinak eta aurrez aurreko erantzun politiko-sozial tinkoa emateko erabakia: Manifestaldia larunbatean Donostian. Bilera Bilbon larunbateko manifestaldirako eta astelehenerako geraldirako deia egin zuten sindikatuak eta beste erakundeek: zalantza eta etsipen-hitz lazgarriak, eta larunbateko manifestaldia bertan behera uzteko erabakia.

Itzulipurdikatua zegoen, beraz, aurreko egunerako giro soziala. Irungo atentatuak guztiz bihurtuta zuen. azken aldian borondatez eta kemenez hainbat indar sindikal eta sozialek irekitako bide zabal eta bateratzailea. Eta herritarrok norik bere ondorioak atera eta erabakia hartu behar izan genuen ostiral goizalde hodeitsuan, artean Gasteizen eta Bilbon bileran zeudela. Nik ere neure ondorioa atera eta neure erabakia hartu nuen: Bilboko manifestaldirako deia eustearen onena, nire ustez, eta orduan neure aldetik hara joango nintzen.

Hona nire arrazoiak: Bilboko manifestaldiak arazo oso larriari protesta-erantzun zabala eman nahi zion, aldi berean dinamika politiko-sozial berri eta itzaropentsua bultzatuz, bizi dugun -jasaten dugun- gatazka hau orain arteko parametroetatik ateratzeko; bihurtuta ezezik, ia birrindua zuen dinamika hori hilketak, manifestaldirako eta geraldirako deialdiari berari eta ahalegin osoari azpia janez; atentatua gaitzesteko modurik egokiena manifestaldiari eustea eta bertan parte hartzea zela iruditu zitzaidan, *gainetik gainditu* hark oin azpian irekia zigan leizea. Horrela salatu ahal genuen, luzaro -luzaroegi- antzu gertatzen ari den probokazio-kondenazio-konfrontazioen dinamika itxia, eta aldi berean berretsi eta sendotu ahal genuen dinamika politiko-sozial berria, oraingo markoa gaindituz, gatazkaren oraingo parametroak ere gaindituzko.

Baina Ajuria-Eneko Mahaiaik, Donostiako manifestaldia-ekin, atentatuari buruz buruko konfrontazio-erantzuna ematea erabakitzen zuen bitartean, sindikatuak eta beste

erakundeek Bilboko manifestaldia bertan behera uztea erabaki zuten. «horretarako baldintza egokirik ez zegoela eta». Asteburuko asmoak aldatzearekin batera, gogotetan jarraitu nuen, etsipenean etsi ezinik. Eta duela hamabost urte idatzia nuen testu bat ekarri nuen gogora.

1983 hartan, liburu hau argitaratu zuen Herria-2000-Eli-za taldeak: *Una historia de incompresión exige negociar*. 80 la- gunek beren iritzia azaldu zuten bertan ETArek eta Espainiako gobernuaren arteko elkarriketa eta negoziatioari buruz. Bakezko jarkiera zibilaren barruan kokatuz elkarriketa eta negoziatioa, honako hitzok idatzi nituen: «Bakezko jarkiera irudimenaz eta sormenez baliatzen da, beti ekintza berriak asmatzeko eta antolatzeko, eta horrela konfrontazio gogortua gainditzeko; era berean, elkarriketa hori ere irudimenez bete izango da, boteredunen eta agintarien arrazoi- keten eta jokabideen gogortasuna eta tinkotasuna, formula- zio berrien eta ustekabean bidez hausteko eta gainditzeko. Imaginazioa ipintzen du jarkiera zibilak konfrontazioaren gain. Bakezko erresistentziaren funtsezko bide bat da elkar- riketa». (167. or.).

Urte asko joan dira ordutik hona. Tartean Aljerreko elkar- riketa-negozioak gertatu ziren. Baina buruz buruko probokazio-kondenazio-konfrontazioen dinamika politiko- sozialen labirintoan galduta jarraitzen dute indar politiko eta mediatiko -eta militar- erabakitzaileek hemen, zuzenbidezko irtenbiderako bideak itxia eta zuzeneko irteeraren bila. Labirinto nahasi honetatik bakearen eta justiziarren argitara ir- teteko atea aurkituko bada, ordea, horren erdigunean elkar- tu beharra dago, hor diseinatu behar delako labirintotik kanporako bidearen planoak, elkarriketaren eta negoziatio- aren mahaiak.

Min eta kalte egin dio aurretik atentatuaren probokazio- ak, azken aldian sindikatuen eta beste hainbat indar sindi- kal eta sozialen ahaleginez ehoz doan -eta zorionez, aurre- rantzean joango den- ekintza bateratuaren mugimendu es- tratetikoa, jasaten dugun gatazkaren oraingo parametro- ak gainditzeko helburuarekin. Eta min egin dio eta ez mese- derik, hilketaren aurrean kondenazio-mobilizazio errepikakorren geratu den Ajuria-Eneko Mahaiaien erre- akzioak, *betikoak* ez liratekeen bestelako irtenbideak propo- satu eta aurrera eramateko hitzik eta erabakirik ezean.

Probokazio-kondenazio-konfrontazio soilen dinamika gai- netik gainditzeko irekitzen ari den bide ausarta eta kemen- tsua ez da zorionez bertan behera geratu Bilboko bileraren ondoren. Etenda geratu bada ere, berritua lehenbaitlehen ekin beharrekoa da. Denok labirintoaren erdigunera bidera- tzeko modu bakarra dela dirudi horixe. Alde batetik nahiz bestetik ipiniko dituzten oztoparriak -nahiz harrisia- eta irekiko dituzten leizeak gainetik gainditu beharko dira irudi- men handia jarriz. Esperantzen leioak irekita jarraitzen du, jarraitu behar du. ■

Joseba Agirretxea



Bertso-ghetto

gandean ez nongoen bertso gehiegitarako, eta egia esan arratsalde parteak arte ez nion jaramonik egin batzuen aburuz Ano- etan ospaturiko *jai nazionalari*. Asperturik nago, zenbait ekintza sozio-kultural aspalditik hartzen ari diren *ghetto* itxurarekin. Eta *ghetto*-a, jende kopuruz haundia izan arren, *ghetto*-a da. Hau da, itxia, monokolora. Eta horrek mesede gutxi egiten dio gure herri eta kulturari. Badakit beharbada bertsozale elkarteko zenbait adiskide haserretuko zaizkida, baina tamalez hori da hartzen dudana inpresioa. Kontua ez da erantzukizuna nor duen salatzea, baina errealitatea hori da.

Bertsolari bakoitza aske da nahi duena kan- tatzeko eta kontatzeko, eta ikus- entzuleak era berean txaloko edo txistuak jotzeko. Baina ondo- rioz bertsozale asko etxean geratzen da, bertsola- ritzaren kaltetan. Apustu egingo nuke bertsolari- ren batek final hartan bi egun lehenago hil zuten gizonaren omenez bertsoren bat kantatu izan balu, jasoko zituen txistuez gain, arazoak izango litzukeela Euskal Herriko hainbat plazatan kan- tatzeko. Baina noski, denok dakigun beste gai batzuei erreferentzia egin ez gero, kotizazio popu- larra igo, eta inplikazio militantea bermatu. Tamalez halaxe da, edo bestela galdetu nazka- nazka eginda dauden hainbat bertsolari eta ber- tsozaleri.

Asko jarri salaten zaio sistema ofizialean finka- tua egon izana, baina zenbait kasutan kontra- sistema ofizialean ez dagoenak ere jarri dauka. Badakit Elkarteko asko, ahalegin haundiak egi- ten ari direla bertsolaritza denon esparrua izan dadin, baina Nafarroako edo Eusko Jaurlaritzako ordezkariek sariak eman behar dituzten, antolatzaileek ez daukate publikoak xoxegatzeko zertan justifikaziorik eman. Zoritxarrez Xalbado- rri txistuak jo zizkieten intolerantzia, oraindik hor dago.

Kornera

Mikel Elorza

Ipar haizea

■ Haizea dator iparraldetik, hego berotik ekaitza, eta batzuk beti ziliborrari begira. Haize freskoa dabil Ipar Euskal Herrian. Ministerioen bilkura iritsi da Ipa- rraldeko agenteek landutako Lurralde Eskema, eta harrera behintzat egin egin zaio. Asmoak eta gogoak dira, gehienbat, Estatuak adieraztakoak, batik batik euskararen garapenari dagokionez, baina gutxienez kontuan izan du. Ez da gutxi orain arte atekatez fierki itxi dituen Frantzia jakobinoarentzat. Eskasa da lortu dena, jakina, baina ez da hori garrantzitsue- na.

Ekaitzen erresuman, Hego Euskal Herrian arre- tarik jarri ere ez diogu egiten prozesuari. Eta noizik eta behin Iparraldeko norbaitek hitz egin ez gero, argi- ro azalduko dizu: Ipar Euskal Herrian abertzaleek lanean dihardute, gutxienezko batzuen inguruan adostasuna badute, eta aitzinera doaz. Badoaz behintzat. Balkor azaltzen dizute hango egoera, eta ezkor begiratzen Hegoaldera. Hori da garrantzitsue- na.

L A P I H I T Z A

